

Monismoa

Filosofi modua, diren guztiak izaki bartzat adierazten dituen. *Dualismoaren aurka dago zuzen-zuzenean; baina jainkozko *trazzendentiaren eta *kreazioaren aurka ere bai; zenbait erlijio monista da panteista den neurrian, edo gauza guztiak Jainkoaren agerpide soiltzat hartzen dituen eta Hargan suntsitzera bideratuta daudela irakasten duen neurrian. Ik. Panteismoa.

Monismoa ez da sistema filosofiko jakina; hainbat sistematan agertzen da: *materialismoan, idealismo absolutuan, *emanatismoan.

Ik. Idealismo absolutua; Dualismoa.

Monjea

Ik. Monakoa.

Monofisismoa

Jesukristok zerizan bakararra, hots, jainkozkoa, duela irakasten du. Kaltzedoniako Kontzilioak (451. urtean) gaitzetsi zuen irakatsi hori; baina monofisismoari eutsi zion hainbat Eliz elkartek; ondorioz, Eliza koptoa eta abisiniarra, Eliza jakobita (Syrian) eta Eliza armeniarra Eliza Katolikotik banandu egin ziren. Oraindik ere bizirik diraute Eliza monofisitek.

Dena dela, zenbait aldiz, monofisitatza jo izan diren jarreraren azpian, ulerpen-arazoa edo *physis* (zerizan) berbaren ulerpiderena besterik ez dago.

Hori irakatsi duten teologoei begira, bestelako izenez ere izendatu ohi dute monofisismoa: Eutikianismoa, apolinarismoa, eta abar.

Ik. Eliza koptoa; Eliza ethiopiarra; Eliza jakobita; Eliza armeniarra.

Monogenismoa

Gizadiaren sorrerari buruzko teoria da, gizon-emakume guztiak guraso-bikote bakarretik datozela irakasten duena. Teologi alorrean monogenismoaren arazoa jatorrizko bekatuarekin lotuta egon da.

Ik. Jatorrizko bekatua; Antropologia teologikoa.

Monolatria

Erlijio politeistaren barruko gurtza eta jainkotiartasunean, jainko bakar eta jakin bat jaurestea da; beste jainkoen izana ukatu gabe, hala ere.

Ik. Politeismoa; Gurtza(pena).

Monoteismoa

Grezierazko *monos* (=bakar) eta *theos* (=jainkoa) hitzetatik datorren konposatua. Jainko bakar gorenaren izatea baieztatzen duen irakatsia edo erlijioa da monoteismoa. Horrek ez du esan nahi, gero Jainkoaren menpean leudekeen eta era batera edo bestera Beragandik letozkeen bestelako izaki zerutar beheragokoen eta maila ezberdinetakoen izatea sinetsi eta irakatsi ezin daitekeenik. "Jainko bakararra" esatean, beste jainkorik ez dela adierazten da; besterik da "Jainko bata", hau da, bere baitan bakuntasuna eta batasuna duen Jainkoa.

Jainkoari buruzko ideia filosofiko-metafisiko erdi-zuzena edukitzeak berak dakar monoteismoa baieztatu beharra. Jainko Gorenaren, ezin bikainagoaren eta, beraz, bakarrenaren ideiak nahitanahiez aurkatzen du bestelako jainko leihakideen izatea; horrelakoek, izan ere, Jainko bakarrari egotzi beharreko bikaintasunak derrigorrez ukatuko lituzkete (ik. Politeismoa).

*Judaismoa, *kristautasuna eta *islamiismoa dira hiru erlijio monoteista handiak. Hirurek defenditzen dute kontu handiz monoteismorik erabatekoen edo sustraizkoena, arrazoi metafisikoetan eta erlijiozkoetan oinarriturik.

Islamiismoak, berriz, bestelako jainkoak ukatzeaz gainera, Jainko bakararra ez diren bestelako izaki edo gauzei emateko edonolako *gurtzapena ukatzeraino darama bere muturreko monoteismoa. Horrela jokaten du, jakina, Jainko bakarraren ondoan antzekorik ez onartzearren, eta are gutxiago lehiakiderik, eta bestelako izakiei erlijiozko agurrak egiteak horiek poliki-poliki jainkoesteko arriskua eraman dezakeelako (ik. Idolatria).

Bada monoteismo-moduko bat, politikoa dei genezakeena. Herri jakin batentzat jainko bakarraren izatea baieztatzen du horrelakoak, beste Herriek beren jainkoak edukitzea onartuz, hala ere. Horrelako monoteismo politikoa politeismoa izanez jarraitzen duela argi dago, bakoitzak bere jainkoak izatea ontzat ematen duenez: horrela jainko ugarien izatea baieztatzen du azken batez.

Judu-Herrian bezala beste hainbat lekutan, bi monoteismoak elkarren osagarri dira: atzerrien jainkoak izatez idolotzat, hutsaltzat, jotzen dituztelako, eta, batez ere, juduek beraiek Jahve, ez beste jainkorik edukiko dutela esaten dutelako. Jesukristoz gero, Israelen Jainko bakararra hartuko du *kristautasunak beste Herri guztien Jainko bakartzat ere.

Kristau-monoteismo erabatekoak ez du eragozten egiazko Jainko bakar eta batagan

hiru pertsona edo norizan bereiz direla aitortzea. Irakatsi hori zehaztu zuten garai hartako terminologia dogmatikoaren arabera, jainkozko izate batbera dute edo izate berekoak dira jainkozko hiru Pertsonak: Hirurak dira egiazko Jainko bakarra.

Ik. Henoteismoa; Hirutasun txit santua; Trimurti; Triteismoa.

Jesús Lezaun
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Monotelismoa

VII. mendean *monofisismoa eta irakasbi-de katolikoa hurbildu nahian eraturako "teoria", zeinak irakasten bait zuen Jesukristok nahimen bakarra zuela: jainkozkoa. Konstantinopoliko Kontzilio ekumenikoak gaitzetsi zuen 680an monotelismoa eta Jesukristoren bi nahimenak aitortu. Horren bi zerizaren arabera: jainkotarra eta gizatarra.

Ik. Gizakundea; Jesukristo.

Montanismoa

Kristautasunaren II. mendearen bigarren erdialdean Frigia-n sorturiko mugimendu apokaliptikoa, eta gero beste lurraldetara zabalduz V. menderarte iraun zuena. Montano izan zen horren sortzaile eta zabalzailea; beragandik datorkio izena *sekta montanistari.

Izpiritu Santuaren berehalako etorrerari buruzko ustea jarri zuen Elizaren eraberrikuntzaren eta berriztapenaren oinarritzat; bera eta bere jarraitzaileen *profetismoan etorrera hori gertatutzat ere sumatu uste zuen.

Moralaren mailan oso hertsia zen sekta: bigarren ezkontza gaitzetsi egiten zuen; fedeagatik erasoaldiari ihesegitea ere bai; soldadutzaren kontrakoa zen.

Azkenean sekta itxi bihurtu zen, benetako Eliza "pneumatiko" edo Izpirituarenatzat montanismoa bakarrik hartzeraino.

Tertuliano ere montanista bihurtu zen bere bizitzako bigarren erdialdean.

Ik. Apokaliptika; Izpirituismoa.

Moon

"Munduzabaleko kristautasuna bateratzeko Elkartea" edo "Baterakuntzaren Eliza" ere izendatu ohi da. S.M. Moon korearrak eraiki zuen, 1936ko Bazko-egunean eduki omen zuen Jesukristoren agertaldiaren ondorioz. Bere irakatsia Jainkozko Printzipioak liburuan dago bilduta, eta bertan gizadiaren historiaren irakurketa egiten du Bibliako testuen argitan. Kristautasunaren eta asiar filoso-

fiaren elementuez osaturiko irakatsi sinkretikoa da. Komunismoaren etsai sutsu agertzen da bertan. Ik. Sinkretismoa.

Proselitismo gogorrekkin batera *elkar-te-biziera beroa eta deboziozkoa egiten dute. A.E.B.etan eta Frantzian bere eragin politikoa erakutsi dute azken urteotan Moon-en jarraitzaileek.

Moralismoa

Ik. Moralkeria.

Moralkeria

Erljio gehienek okerrerako adiera ematen diote moralismoari edo erlijioa moralezko sistemarekin berdintzeari.

Joera bat da, beraz, moralkeria, erlijio osoa etika huts bihurtzekoa, horren misteriozkoa eta teologiazkoa gutxietsiz.

Ik. Etika eta erlijioa; Antroposofia.

Mormoiak

Beren izen propioa beste hau dute: "Jesukristoren Eliza: azken eguneko santuena". Beren liburu santu berezia, Bibliaz gain, Mormon-en Liburua dute, K.o. IV. mendean errebelatu eta idatzia omen zena, eta Joseph Smith-ek 1823an idoro eta argitaratua, zeinetan amerikar Herria Jainkoak hautatutzat hartzen bait da. Liburu horren inguruan sortu zen New York-en erlijiozko mugimendu bizi, urte gutxitan A.E.B. etako beste hainbat hiritara zabaldu zena. Beren finantz negozioengatik eta poligamiagatik eraso handi eta luzeak jasan behar izan zituzten urte haietan, mormoiek, A.E.B. etako herritarren aldetik. Smith bera, espetxean zegoelarik, herri-jendeak hil zuen, matxinada batean. Horren jarraitzaileek *martiritzat daukate beren Elizaren eratzaillea.

Hirutasuna aitortzen dute nolabait; Amerikan berreratuko da, beraien ustez, Kristoren Erreinua, eta berreraikiko Sion; uretaratzeko edo urperatuzko bataioa egiten dute; *profetatzen eta *sendakuntza izpirituletan ihardun ohi dira.

Poligamia 1890ean baztertu zuten. Mormoiak bereziki nabarmentzen dira mundu osoan daramaten misio-ekintzagatik: eliztar bakoitzak urte pare bat lan horretan eman behar du, bere kontura.

Mormoien Elizak ondasun handiak ditu, fededun bakoitzak bere sarretarako hamarrena hari eman behar bait dio.

Ik. Jainko-herria; Uretaratzeko bataioa; Sendakuntza-sekta; Misioak; Proselitismoa.